

«EUSKARAREN LEKUKOEN HIZTEGIA»

Apirilaren 4a egun gogoangarritzat, euskal kultura-bidean urrats tinkoa eman zenekotzat aipatu beharko litzateke beti.

Euskarazko liburugintzan garapen harrigarria izan du azken urteotan. Hori egiaztatzeko aski da urtean behin Durangoko abenduko liburu eta disko azokara osteratxo bat egitea. Alabaina loratze jori honen erdian ere nekez, noiz edo noiz, oso bakan argia ikusi ohi duten horietariko lan eskergaitza hautatu dut gaurko gaitzat. Bederatzi liburukitako hiztegi handi eta aberats hau, euskal liburuen zerrendan puntu eta komaz datorkiguna barik, puntu eta apartekoa da. Berezia R.M. Azkue, J.M. Barandiaran, Luis Mitxelena eta abarren goi mailako lanen sailean kokatuko nuke; euskararen urrezko mailadi honetan gure egunotan gorantz emandako urrats irmen segidan.

Aurkezpenean Alfonso Irigoienek ageri-agerian eta beste euskaltzale askok, besterik ezcan, erdi ahopcan salatu izan dutena hiztegi honen izenaren ondo-ondotxoan egilearen izena ez agertzea izan da. Benetako egilea nor den argi eta garbi jakin arren, pixka bat ezkutuan, ia-ia bazterrean utzia izan dela, alegia. Liburuaren abiaburua argitaratzailearen izena dator -lehen argitaratzailearena, hain zuzen- eta barruan Manu Sota, Pierre Lafitte eta Lino Akesolo, beraien ondoren sei laguntzailearen izenak aipatzen direlarik. Lan honen oinarriak Manu Sotak jartti zituen,

Pierre Lafitte ere aintzindarietarikoa izanik. Baina arnasa luzeko lan hauetan ia beti gertatzen denez urteak eta urteak tartean dirrela, poliki-poliki beti aurrera eta aurrera egitea nahiko zail ohi da. Honelakoetan erditze neketsuak, latzak, gorabeheratsuak izatea ez da harritzekoa. Katedrale handiak eraiki zirenean bezala, honetan ere askoren ikutuak, bultzadak, laguntza nabari dira... baina halabeharrak eraginda edo, hasierako guztiak, Lino Akesolo ezik, aldendu egin dira, batzu betiko aldendu ere, gure mundu honetatik joanak bait dira. Lanak etenaldi luzeak izan ditu. Une batzutan, betiko lotan bertan behera utzia bailegoen, sekulara burutuko ez den lana zirudien. Baina isil-isilik eta txiri-txiri hortxe ziarduten Lino Akesolo egileak eta Koldo Ortega koordinatzaileak lan neketsu honi inoiz bizkar eman gabe. Egia esan, egileak orain dela urte mordotxo bat burutua zuen berari zego-kiona. Arazoak argitarapenari begira ekonomi arlokoak ziren. Orain, arazoak arazo, hortxe dugu lana burutua eta ongi burutua. Zorionez, egia bilakatu da harako esatera: «Ezina ekinez egin».

Adiskide euskaltzaleekin solasean, zera entzun nion bati: «Honelako lanik inork egitekotan, Lino Akesolok». Euskal Herrian nekez aurkitu daitekeela -esan nahi zuen- lan hori burutzeko hura baino aproposagorik. Neu ere horretan nago. Literatura zahar eta berrian ongi jantzia. Irakurle handia, eskuan lapitza eta alboan papera zituela Iparraldeko nahiz Hegoaldeko idazle zaharren liburuak arakatu eta aztertzen ohitua, oroimen harrigarri hornitua. Euskaraz idazten, euskal kulturari murgiltzen gazte-gaztetarik hasi, garerdi zela jarraitu eta oraintxe larogerrantz doala fruiturik oparoenak eman dituen; gizon jakintsu, argi eta saiatu baten bizitza osoko fruitu urmoak.

Norentzat den hiztegi hau

Norentzat ez den esanez hasiko gara. Edonorentzat ez dela argi dago. Hiztegi honi etekin onik ateratzekotan, euskal sena nahitaezkoa da. Berrehun mila hitz eta milioi bat adiera ezberdin dituen hiztegia ez da euskal gaietan trebatu gabeko edozein gaztetxorentzat. Idazkera, euskalki eta maila ezberdinetako argi-

tarapenen testu eta hitzen lekukotasuna jasotzen duenez gero, ongi hautatzen jakitea ezinbestekoa da. Harrobi agortezina da hau, baina guztiak ez daude horren onuraz ongi baliatzeko eran. Oilhan zabal honek narotasunean erraz gal daitezke. Liburu xumeak, eskuliburuak, eskola-liburuak, garaian garaiko edo adinez adin egokituak diren materialez baliatzen ohiturik daudenei handi gertatuko zaie ezbaïrik gabe.

Administrazio bulegoetan, inoiz presaka edo itsumustuan, folioak eta folioak euskaratu behar dituztenei ere ez zaie, agian, beren beharraren neurriko egingo. Astiro ibilita ere, horrelako lanetan hiztegi berezituak behar dira, hitz jatorrez gainera mailleguak eta arlo bakoitzari dagozkion hitz tekniko ugari dakartzatenaak.

«Arinaiztarrentzat» ere ziur ez dela hiztegirik egokiena. Areago esango nuke: hauentzat gelako apalen betegarri eta apaingarri gertatuko da onenean ere. «Arinaiztar» hitz bitxi horrek Ondarroako gaitzizenen bat ematen du. Edozein bertsolazeri PELLO ERROTA gogoratuko zaio, agian: «Ari naizela, ari naizela hor ikusten det Txirrita...» Lino Akesoloren berrehun mila hitzen artean ez dator. Nola etorriko da, bada? *Hiztegia 2.000*koek zabaldu duten hitz berria da. Honelaxe dio hitzez hitz: «Arinaiztar»: adj. eta izlag. «mote que se pone a aquellos vasos que siempre están aprendiendo euskara sin lograrlo nunca (de ikasten ari naiz)». Arinaiztarrei, gehienetan gaztelaniaz gainera beste hizkuntza bat edo bi dakiten jaun ohoretsu eta aberatsak izan ohi direnez gero, liburuak erostea bai komeni zaie euskal kulturari laguntzeko eta etxeko egongela apaintzeko, liburuki hauek oso dotoreak bait dira...

Beraz, norentzat da? Euskara sakondu nahi duten guztientzat, euskaldunzahar izan nahiz euskaldunberri. Hauentzat ia beharrezkotzat dut, euren euskaltegi kutsuko euskara mergel eta giharrerik gabeko horretatik benetako euskararen ingurunari aberatsera iragan daitezen.

Euskal idazleentzat tresna aparta da, edonoiz hartara jo ahal izateko esku-eskura eduki beharreko lagungarria. Gainera, erdal

Egin esan ditzake ezin ona ta Santua den Jesusen Bihotza; bada Santua da bazterrik ezten Jainkoaren Santidadez. Ez da Bihotz onetan orkitzen neurri ditzeken lan edo gogorik, guziak dira Jainko Gizonaren gauzak, edo bazterrik gabeko gauza, ta merzimenduak. MENDIBURU, Jesusen Bihotza.—IV: ♦ Orilla, extremo o remate de una tela, etc. *Mihise* bazterra. (S) HARRIET. Soia bazterrak lotitzea. HARRIET.—V: ♦ Margen de una página. *Planaren* bazterra. POUVREAU. *Halatan* nik ere zenbait aldiz eskiribatu-koitut alde batera liburuan barrana, eta bertze aldera liburuaren bazterrean, «an marges». AXULAX, (4.º) XLI.—VI: ♦ Lado, cualquiera de los pasajes que están alrededor de un cuerpo (heredad). *Bazter handiak ditu* etxe horrek HARRIET. *Miratzatze* bazterrak (alrededores). POUVREAU.—VII: ♦ Lado, sitio, lugar, paraje. *Bazterrak* (los campos) *eder dira*. DUVOISIN. *Bazter ederra duzu* (sitio, propiedad). Id. *Bazter handien jabe da*. HARRIET. *Bazter guziak ongi bilhatzen*. HARRIET. *Ameltea* dibinoki albertiturik *retira* ezdin *Calitako* bazterretatik. LEZARRAGA, Mat. 2, 22. *Iguzki aldeko* bazterretatik *etborri* erregaik. HARRIET. *Bazter* (lugar, país) *hanitz* *elburuen* *diana* eta *dantzen*. HARRIET. *Españiako* bazterretara *etorri* berria *bada* ere, *ezta* berria *Jesusen* *Bihotza*-ren *debozioa*. MENDIBURU, Jesusen Bihotza, 50. *Probentzia* *hariako* *bertze* *bazterrak* *aberatsagoak* *dira*. DUVOISIN. *Berretuko* *diat* *hure* *ondorea* *zeruetako* *izarrak* *bezoa*, *eta* *emana* *ziotzat* *hure* *andoreari* *bazter* *horiek*. URTE, *Ethorkia*, 26, 4. *Bazterretako* (de los campos) *lilleri* *zandezioki* *begira*, *nola* *dira* *handitzen*. DUVOISIN, Mat. 8, 28.—VIII: ♦ Lado, parte. *Su* *datzako* *bazter* *guziak*. (J. Etxebarry) HARRIET. *Bazter guzietan* *begira* *jarri* *zen*. DUVOISIN. *Begi* *bazterraz* *behatzen* *dira*, *no* *mira* *de* *frente*. DUVOISIN. *Larreak* *gauza* *hoberenet* *begi* *bazterrez* *behar* *diotzate* *behatu*, es decir, *mirar* *con* *el* *raño* *del* *ojo* *o* *mirar* *de* *lado*. LEON, *Imit.*, 88. *Bazter* *guziak* *zorrez* *beha* *ditu*. DUVOISIN. *Para* *indigar* *gran* *cantidad* *de* *algo* *se* *emplean* *los* *siguientes* *modismos*: (Harriet) *Ethurrez* *bazterrak* *egin* *ta* *Gizonaz* *bazterrak* *baziren*. *Gazterrez* *bazterrak* *betheitu*. (Véase *baztar*. 1). *Bazterrak* *nahasi*, revolver el país. Herria, Erran-zahar.—IX: ♦ Consecuencia. *Gauza* *edo* *gertakari* *baten* *ondorio* *tzarrak*; *alderi* *batenak*, *goize* *baten* *irantz* *luzea* *eta* *unen* *kutsuetan* *ondorio* *tzarrak* *aduraz-* *teko* *maiz* *entzuten* *dugu* *korrek* *bazter* *belzak* *ditu*. F. IRIGARAY, *Prosistas* *navarros*, 157 y 158.—X: ♦ Mundo ambiente. *Peio* *tipia* *bere* *adineko* *haurrekin* *jostutzen* *ari* *da*. *Bainan* *baz-* *terrak* *nahasi* *dira* *eta* *azkenean* *aldu* *da* *anaren* *ganat* *nigarrez*. Egunaria, 9-7-1959.—XI: ♦ Apartado, separado, lejano. *Ezta* *komentu* *hori*

santurik *ez* *leku* *han* *bazterrik*, *max* *lentazioneak*, *edo* *phanak* *eztzen* *ediretan*. (S) *Imit.* 90. *Hiri* *handietan* *goitoginak* *hain* *anart* *eztzenaz* *goraz*, *zer* *ez* *ahai* *zutun* *eginen* *bazterretatik*? Prop. 1883, 238. DUVOISIN. *Bazterretatik* *egotea*, hacerse a un lado, apartarse. Id. *Nik* *uste*, *Jose* *bazter* *zela*, yo creía que a José se le dejaba de lado. BERA, *Eusk. Esm.* 1914, 83. *Bazter-haite* *ibiltzea*, ir con el viento de lado. (L) HARRIET.—XII: ♦ Indet. de *baztertu*, apartar. *Bazter* *zatu* *gure* *begiak* *ene* *behaluetatik*. Jubilar 1926, 59.—XIII: (AN, BN, S) *Contiguo*, adyacente.*

BAZTER-ARAZI: ♦ Hacer apartar, retirar. *Amak* *aldiz*... *lurrean* *zagoslarik* *jarri*, *bazter-arazien* *ziutun* *ukhaldi* *guziak*. Prop. 1897, 83.

BAZTER-BAZTERREAN: ♦ Al lado, muy cerca. *Bazter-bazterrean* *duzu* *urrun* *ustu* *duziona*. DUVOISIN.

BAZTER BIDE: ♦ AZKUE dice «camino carretil»; debe ser traducción errónea de esta palabra tomada de DUVOISIN, el cual le da el significado de «orilla o acera de las calles». HARRIET, «camino apartado».

BAZTERGARE: ♦ Ilimitado, inmenso. *Txinako* *erretama* *baztergabe* *hartan* *orain* *badira* *parabitsu* *tokki* *batza*. Prop. 1893, 49. *Baia* *ez* *da* *sinesteko* *gauza*. *Jaueneren* *outasun* *baztergabeak* *sinbeste* *an* *utzi* *zizuala* *behotu* *original* *edo* *jatorrikoaren* *sendagai* *gabe*. J. S. AGUIRAE, *Erakus*. I, 8.

BAZTERGARRI: ♦ Derivativo. TOU-
NIER.

BAZTERKA: ♦ *Bazterka* *ezarri*, poner aparte y dejar a un lado. *Bazterka* *ibiltzea*, andar distraído un lado, renegar. DUVOISIN. *Bazterka* *ibiltzea*, andar buscando los sitios apartados. DUVOISIN. *Unkurka* *edo* *bazterka* *dabilen* *gizona* *ezerra* *dela* *esaten* *dagu*. (G) AZKUE, *Dic. Art. Esker*.—II: *Bordear*. *Kosta* *bazterka* *zuzaten*, bordearon la costa. (Leizar. *Act.*) HARRIET.

BAZTERKARI: ♦ Amigo de rincones, de separarse del grupo. *Sobera* *ardi* *bazterkari* *deiarik* *arthaldean*, *arthaldearen* *goberruak* *ez* *dezake* *burutzerik* *egin*. Herria, 18-4-1957.

BAZTERKATU: ♦ *Esparrir*, despararrar, ribetear. (HD) LIANDE. *Barrugai* *eta* *hamar* *aderaitularik* *berrehun* *arte* *hura* *eginet*, *erosiko* *dira* *goaz*-*semeari* *xapel* *erria* *bat*, *edo* *gorriko* *zuri* *gorriz* *bazterkatu* *bat*. Prop. 1897, 124.—II: *Hacerse* *a* *un* *lado*. DUVOISIN. — III: *Bordear*, andar por la orilla. HARRIET.

BAZTERKI: (AN-b, Sc) *Ribete*, retazo de la orilla de algún lienzo o tela.*

BAZTERKIN: • Ribete. *Solana biolotik gabe eta gorritua berean den gutienko bazterkin gorritarik gabe (Aphexilusk).* Prop. 1899, 204.

BAZTER-MAHAIN: • Credencia. **TOURNIER.**

BAZTER-NAHASLE: • Sedicioso. *Bazenonduan Barrabas deitu bat, bazter-nahasle batzuekin preso gero.* LEON, Marc. 15, 7. —II: Turbulento, confuso, desordenado. *Zure bizimolduan hain harro, zure irratietan hain bazter-nahasle.* LEON, Imit., 349.

BAZTERRAGIN: (Sc) Muela de juicio.*

BAZTERRALDE: • Campiña: por extensión, comarca, por restricción, bienes campesinos. **DUVOSIN.** Bazterralde, (casería) oberats bat bada. **HARRIER.** Bizi zen bazterralde (comarca) ariako gaseta astuna bait-zen. **OLANDE,** Gen. 12, 10.

BAZTERRALTXTATU: (Lc) Levantar las esquinas de un campo.*

BAZTERRARAZI: • Hacer retirarse. *Herratu zituen bazterraraziekotzat bere etxera.* **DUVOSIN,** Gen. 14, 3. —II: Hacer apartar; poner a un lado, desviar. **DUVOSIN.**

BAZTERREKO: • Que es del borde; que es del lado. **DUVOSIN.** *Ut bazterreko belantza.* Id. —II: Fig. bastardo. Id. —III: Espectador. Id.

BAZTERRERAT EMAN: • Separar, destituir. *Fuje hura ez dut behin bazirik ikusi. Haudik laster bazterrerat eman izan zen, ene atzet gure alderat sobera ona zelakotez.* Prop. 1879, 34. —II: Ahorrar. **DUVOSIN.**

BAZTERRERATU: • Arrinconar. **BERA. LARRAMENDI.**

BAZTERRETIK BAZTERRERA: • De un extremo a otro. *Bazterretik bazterrerara hau munduareu zabalak.* Canción Laburdina.

BAZTERRETSI: • Postergar, relegar. *Manuel Garagorri ta Larramendi Andoain'en jaio zen 1690'ga urtean. Ezta kigu zer data-ia aintatu zen amaren abizena eta aitaren bazterretsi.* J. ETKAIDE, Amasei seme, 120.

BAZTERRETZAR: • Casero, habitante de un caserío. *Bazterretzar gasoa helat! zuek jaten duzun ogi horroa, maiz bustia da zuen inguruez.* Egum ona, 54.

BAZTERRETZE: • Caserío. *Ez laiteke bazterretzek nahi mandagirik gabe.* **DUVOSIN,** Labox., 14. *Atseñ hau berat goizeko freskuaren/ Zapeñ bazterretze baten inguruan.* **GOYBETCHE,** Fab. 128.

BAZTERRETZETAR: • Casero, habitante de un caserío. *Bazterretzetar baki, zakuñ kalapila hura entseutan, aste izan zuen erbi baten gatik zabilizala.* E. ZARNO, Frustas navarras, 64.

BAZTERREZ-BAZTER: • De un lado a otro. *Zu nahiz bala/ Eta minzatu/ Hara nol' erbitatzen/ Bazterrez-bazter/ Ari naiz zure hatzean.* **OLSENHART,** Poes. 119. *Ager albertu andoan, bazterrez-bazter zabilan Berubeko murtua.* **DUVOSIN,** Gen. 21, 14. —II: *Bazterrez-bazter goatea, ir bordeardo.* **DUVOSIN.**

BAZTERRIK-BAZTER: • De un lado a otro. *Bilarte guzian, argazkilaria argazkiak ateratzen, arin ta zait zebilen bazterrik-bazter ta txokorik txoko.* **MOTKOGANE,** Herria, 8-1-1959.

BAZTERSO: • Mirada de lado, disimulada. **S. (Fx) LHANDE.**

BAZTIERT: Indet. de baztertu. *Nere Jainkoa, ez urrutik oihoi niarrik eta zure hasiarean ez baztertu zure zerbitzariaren gatik.* Imit.

BAZTIERTAR: (L-ain) Aldeano, casero.*

BAZTIERTIA: • Disidente. **TOURNIER.**

BAZTERTSU: • Cerca del límite. *Italieren baztertuan da Romako hiria.* **SALASERRY,** Voc., 200.

BAZERTU: • Apartar, alejar, retirar, retirarse. *Jensek adirik preso hartu zutela Joanes, baztertu zen Galizara.* **DUVOSIN,** Mat. 4, 12. *Ex nituen beraz begiak baztertu lehor maite hartarik nuz ez zen itzali azken merendi bizkarra.* Prop. 1884, 120. *Aiki nuzen begi-harriaren ugi gordetza, jenda haundiek hemen betsi nuzen baztertzeko eskutan daukaten oil paika batekin.* Prop. 1879, 67. *Txoko baztertu batzen.* **DUVOSIN,** Gizonik baztertuena, (retirado) bituzena. **AKULAR.** *Agindu ezazu, beraz, zure abere ta landan diran guzirik aterpera baztertzeko.* **OLANDE,** Ex. 9, 19. *Bego zazpi eguzet kaparditiek alde bazterturik.* Id. Núm. 12-14. *Ez diru oharren, laboraria ari dela bazterrean, eta endurtera doala ogi eta esne okar-azalaren arayara.* **SO EGILEA,** Herria, 1-10-1959. *Itsumendu ezin ahazteko! Salbatzeko izan naiz kreatu/ Egileko guzian gainekoa/ Nola bada nik zaitut baztertu! Kant. Esp. (1820). —II: ♦ Arrinconar. *Liburu zuarrak astu ta baztertuuta sukiko dituelako.* **PERU ABARKA,** 4. —III: ♦ *Volver.* *Aspergia ezta bazterrean.* **HARRIER.** —IV: ♦ *Recogerse,* reunirse. *Bere zerbitzariaren etxean geyonra baztertu odo bita zen.* **G. ARRUE,** Beazgille, 269. —V: ♦ *Violar,* infringir, quebrantar. *Aren agindu itikibonca bat baztertu ta bazterrean**

hitzez kutsatutako saihebidia utzi eta euskara onaren erdiko bi-
detik jo eraziko dion gidari ziurra izango du hiztegi hau.

Lexikografian ikerketarik egin nahi duenarentzat funtsez-
koa, nahitaezkoa da. Hortxe dagoela esan genezake euskararen
orain arteko ondarea bildurik; Hegoaldeko nahiz Iparraldekoa,
eusalki guztietakoa, hango eta hemengo euskaldunen ahotan,
idazle ezberdinen luman hitzek hartu dituzten forma eta aldae-
rak jaso dira eta. Baina ez hitzak soil-soilik, hitzak bere testuin-
guruan kokatuak, adierak zehazki bereizirik eta idazleen lekuko-
tasunez ziurtaturik baizik.

Hiztegi txikiagoak, eskolarakoak, erabilgarriak moldatzera-
koan argimaile ezin hobea gertatuko da. Nik neuk behin eta
berrero jo izan dut lehen lau liburukietara; zain-zain geunden
«Bostak Bat» lantaldekook gainerako bostak noiz agertuko eta
zorionez hor dogu bederatzi liburukiz osotutako hiztegi eder
hau buruturik.

Atxakiak

Zerbait ona denean, «horrek ez du atxakirik» esan ohi da.
Laudoriotan aritu gara orain arte... Baina ez ote du akatsik? Jaki-
na! Gizakiaren legea da hori. Zerbait bikaina, goi mailako, izan
arren, ez dago guztien gogobetekorik, hobezinik. Hiztegi honek
ere izango du akatsik; ziur asko ez nabarmenik, esku trebetatik
sortua bait da, baina oraingoan begi zoliz akats bila ihardun be-
harrean, izan ditzakeen mugak aipatu nahi nituzke labur-labur.
Zer falta zaion, zer ez duen, edo eta duenetik ere argitasuna era-
gozten duen zertxobait ote duen eta abar.

Hor ikuspegiaren gorabehera dagoela esan behar. Edozcin
liburu burutzerakoan, egilea erizpide finkoak ezarri eta hasiera-
ko bidegurutzean hautaketa zehatza egin beharrean izaten da.
Hautaketa hori ez da beti irakurlearen gogoko izaten eta akatsak
ez, baina hutsuneak, mugak antzeman ditzake haren lanean.

Hiztegi hau ahozko hizkeran nahiz literaturan finkatutako
hitzen gordairu, euskararen ondare ziurraren lekuko dugu. Hala

ere euskarak, gizarteko edozein arlotan aise ibiltzeko hiztegi honetan ez dauden baliabide ugari bereganatu beharko dituzte maileguak eta hitz teknikoak. Une honetan, behar bada, mordoiloizale eta garbizaleen arteko tirabira etorriko zaigu gogora. Baina pentsaeraz edo teoriaraz benetak mordoiloizalerik ba ote da euskaltzaleen artean? Euskal idazlearen artean behintzat, ia guztiok garbizale gara esango nuke. Euskara garbi, txukuna, adierazpide eta esamolde aberatsez jantzia, baina egungo beharrezanetara egokitua nahi genuke guztiok; alabaina ezin bestean irakaskuntzan, administrazioan, politikan, salerosketan eta lanbide ezberdinetan etxekotzat hartuko bada, mailegu eta hitz teknikoek leku egin beharra dago. Zabarkerian, euskalgaiztoan erori gabe, mordoiloikerian, euskara kutsatu eta traketsari ateak ireki gabe, baina zenbait premiatan auzora jo beharko dugu. Ezin bestean auzora jotzeak ez du esan nahi beti-beti gaztelaniara jo behar denik.

Hiztegi hau ez da arauemaile. Beraz, denetarik biltzen du. Alde horretatik batzurenzat joritasun mesedegarria dena, beste askorentzat nahasbide gerta daiteke. Hitzaren lekukotasuna testuinguruan jasotzen duenez gero, jokaera zuzena darabilenik ezin uka; batzurenzat argitasunaren kaltetan izan daiteke hala ere, zenbait hitz idazkera eta aldaera ezberdinetan bi, hiru eta lau aldiz agertzen bait dira. Hona aurkitu dituzdan adibide batzuz: gaphirio/gapirio/gaphiru; gardamu/gerdamu, gardama/gerdama; abagadune/abagu/abagun/abagune; idauli/irauli/iruli; guren/guru; gardolostu/gardostu; berdoztatu/berdoztu; jaregin/jarein/jarein; igordi/igurdi/igurtzi; soin/soin; sorailu/solairu/solaidu... Iparraldeko tradizioan «h» idazten diren hitzak Hegoaldean ere erabiliak izanez gero, idazkera bietan datoz hutsik gabe. Hona adibide batzuz: abo/ago/aho; hedoi/edoi/hodei/odei; hegal/egal; hedatu/edatu; hego/ego; iharrosi/iharrausi/iñarro(t)si/iñarrausi; iharri/ihartu/iñaurri/iñaurtu; ihes/iges/iñes... Dena dela, Azkuek egiten duenez, zein zeinen aldaera den ere maiz adierazten du. Hego/ego bikotearen kasuan argi handia ematen du, Iparraldean «hego» ez bait da «ala», «sur» baizik; Hegoaldean, oster, «ala» esan nahi du bere lehen adieran.

Lekukoak 1975.urtera artekoak edo dira eta geroztik sortu den literatura ugaria ez dago bildurik. Orain garerdiko diren idazleentarik banakak aurki daitezke: Txillardegi, B. Gandiaga, Luis Mari Mujika, G. Aresti (†). Idazle ohoretsu eta oparoentariko asko falta dira; aipagarrienetarikoa, besteak beste, hauek: Mikel Zarate (†), X. Gereño, X. Kintana, Jon Gotzon Etxebarria, Patxi Altuna, Ibon Sarasola, Ramon Saizarbitoria, Gotzon Garate, Joseba Sarrionandia, Paulo Iztueta, Jose Azurmendi etab. Zaharragoen artean Augustin Zubikarai-ren izenik ez dut aurkitu. Belaunaldi honen hutsunea nahiko nabarmena da, baina guztiok dakigu horren zergatia: egileak berari zegokiona amaitu ondoren, diru arazoan erruz urteetan eta urteetan aldi hobearen zain argitaratu gabe gelditu egon beharra. Hor garbi nabari dena zera da: hiztegiak ez direla behin betirako egiten; noiz behinka ikututxo batzu nahiz astinketa gogor samarrak eginez berriztatu eta gaurkotu beharra dutela.

Azken eritzia

Nik neuk, orain arte gehien bat lehen lau liburukiak erabiliz, lagungarri ontzat dut. Benetan eskertzekoa da askotan eman didan argitasun edo ziurtasuna. Alde batetik hitz bakoitzaren adierak zehatz-mehatz bereizten oso zorrotza da eta bestetik erabilera zaila duten hitzetan maisurik onena. Hona esan nahi dudaren adierazgarri batzu: *Ikus*, esate baterako, ondorengo hitz hauen adierak: *Soil*, *Eragin*, *Eraso*, *Ero*, *Erori*, *Bazter*, *Begi*, *Aho*, *Soñ*, *Soraio*, *Iraun*, *Jarki*... Esannahi eta adiera guztiak agortu arte azaltzen dituela dirudi.

Erabilera zailko hitzetan eman ohi duen argitasunaren adierazgarri honako hitz hauek jota jotzeko eskatuko nioke irakurleari: *Soñ*, *Erail*, *Sorosi*, *Ekidin*, *Ganbo/Ganhour*... Beste aldetik hor ditugu *Jari*, *Jarian*, *Jariatu/Jarietu*, *Jarin*, *Jario/Jarion*. Aldiera guzti hauen erabileraz ez nago batere ziur.

Hitz berriak eta zaharkituak beren-beregi adierazten ditu gehienetan eta hori ere irakurlearen lagungarri da: *Geide* (ark.), *Notin* (neol.), *Ikurton* ez du hitz berri denik adierazten, baina hala

dirudi: «sakramentu» esannahiaz txikitari dotrinan ikasi nuen hitza. *Uskutz* (neol)..

Oraingoz esan beharrekoak agortu zaizkit eta Lino Akesolori, hiztegi honen aitzindariari, lan guztiak bideratzen aritu izan den Koldo Ortegari, argitaratzaileari eta era batera nahiz bestera lan honetan esku hartu duten guztiei zorionak eta eskerrik asko!

Luis Baraizarra